

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

536/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kontribuzio berezia ezartzeari 2026ko ekitaldirako, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko

Su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko Arabako Foru Aldundiaren kontribuzio berezia arautzen duen abenduaren 20ko 16/2010 Foru Arauak 8.2 artikuluan xedatzen du Foru Gobernu Kontseiluak kontribuzio berezia ezartzen eta agintzen duen erabaki zehatza onetsi behar duela, zeren eta, urtero sortzen den tributua bada ere, ezinbestekoa baita zehaztea ekitaldi bakoitzean kuotak kalkulatzeko erabiliko den zerga oinarria.

Kontribuzioaren zerga egitatea da subjektu pasiboek onura lortzea Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako obrak gauzatzeko edo zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeagatik. Eta zerga oinarria da zerga egitatea gauzatzeko Arabako Foru Aldundiak jasaten duen urteko kostu osoa. Sortzapena ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatzen da, Arabako Lurralde Historikoko urte bakoitzeko aurrekontuei buruzko foru arauan Arabako Foru Aldundiak Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuan obrak gauzatzeko edo zerbitzua ezarri, hobetu eta handitzeko aurreikusitako kostuari lotuta, eta, hala badagokio, ondoren, likidatu egiten da.

Kontuan izanik 2026rako Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua gauzatzeko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauan ezarritakoa, ekitaldi honetarako aurreikusitako inbertsio garbien kostua 2.593.278,00 euro da.

Subjektu pasiboak dira, bereziki onuradun direlako, Vitoria-Gasteiz ez den Arabako Lurralde Historikoko herriren batean arrisku jakin batzuk babesten dituzten polizak kontratatuta dauzkaten aseguru etxeak.

Zehaztutako arriskuak babesten dituzten aseguru etxe edo erakundeei eskatu ahal zaizkien kuotak Arabako Lurralde Historikoan aurre-aurreko urtean bildu diren primen proportzioan banatzen dira, muga izanda batutako primen ehuneko 5. Kalkulu horretatik kanpo gelditzen dira Vitoria-Gasteizko udalerrian arrisku horiek estaltzen dituztenak.

Kuotaren dirubilketa aseguru konpainien elkarrekin edo arriskuak estaltzen dituzten erakundekin egindako hitzarmen prozeduraren bidez egin daiteke, behar bezala baimendutako ordezkariak aldez aurretik eskatuta. Izan ere, kudeaketa erraza denez eta diru sarreretan egonkortasuna dagoenez, formula hori jo zen dirubilketa egiteko egokientzat.

Hala, uztailaren 21eko 345/2020 Foru Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion lankidetzak hitzarmena sinatzeari Gestora de Conciertos para la Contribución a los Servicios de Extinción de Incendios AIErekin eta haren administrari bakarrarekin, Unión Española de Entidades Aseguradoras y Reaseguradoras delakoarekin (hemendik aurrera UNESPA), 2020-2023 laurtekorako, eta hurrengo ekitaldietarako luzatzeko aukera jaso zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 675/2023 Erabakiaren bidez, 2027ko abenduaren 31ra arte luzatu zen lankidetzak hitzarmena.

Dena den, aseguru etxe guztiak UNESPAren barruan ez daudenez gero, 16/2010 Foru Arauan aipatutako arrisku horiek estaltzen dituzten eta itunak kudeatzeko erakundekoak ez diren aseguru etxeei eskatu behar zaie aurkez dezatela 2025ean bildutako primen zenbatekoaren aitorpena.

Ondoren, jasotako argibideetan oinarrituta, aipatutako foru arauan xedatutakoaren arabera (Arabako Foru Aldundiaren hasierako aurrekontua, primen proportzioa eta primen ehuneko 5), likidazio proposamena bidaliko zaie aipatutako aseguru etxeei, nahiz eta gerta litekeen UNESPAren bidez biltzea, aseguru etxeei behin-behineko likidazioak bidali aurretik. Likidazio proposamena bidaltzeko ahalmena Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuari ematen zaio.

Horrenbestez, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiak su itzaltze eta salbamendu zerbitzua ezarri, hobetu edo handitzeko kontribuzio berezia ezartzeari 2026ko ekitaldirako. Zerga oinarria 2.593.278,00 euro izango da, edo ekitaldian aurreikusitako inbertsioen kostua.

Bigarrena. Ahalmena ematea Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatuari, likidazioa egin dezan, hala badagokio, itunak kudeatzeko erakundeari atxikitako konpainiek sortutako aseguru sarietan oinarrituta, bat etorri UNESPArekin izenpetutako hitzarmenean jasotakoarekin.

Hirugarrena. Itunak kudeatzeko erakunde horretakoak ez diren aseguru etxeei eskatzea 2025ean bildutako sarien zenbatekoaren aitorpena aurkez dezatela, baldin eta foru arauan aipatutako arriskuak estaltzen badituzte eta Vitoria-Gasteiz ez den Arabako Lurralde Historikoko herriren batean badihardute.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko foru diputatua,

IÑAKI GURTUBAI ARTETXE